

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2016ko apirilaren 13a, asteazkena.

2016ko maiatzaren 11ko akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (Eh Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (Eh Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE). Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuraren buru.

Bertaratu ez diren zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzenetik eta arauzko publikitatearekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2016ko martxoaren 9an eginiko bilkurako akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.**
 - 3.1. Zehatzeko ahalmena ematea Arabako Errioxako Ur Kontsultarioari.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea:**
 - 5.1. Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa, Lezako Ospitaleko zerbitzua indartzeari buruzkoa, eta EAJ-PNV taldeak egindako zuzenketa.
 - 5.2. Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa, Lezako Ospitaleko mamografiaren kanpainari buruzkoa, eta EAJ-PNV taldeak egindako zuzenketa.
6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea**
 - 6.1. 2014 ekitaldiko Aurrekontu Orokor Arruntaren likidazioaren onespeneraren berri ematea. Azken puntua) Galderak eta eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorriz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2016ko martxoaren 9an eginiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrak egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Rubio Lafuente andrea: Azken orrialdean, Onkantari buruzko galderan, Ruiz Zuazo andreak hau dio: Ez al da bateraezina zinegotzi baten enpresarekin kontratatzea? Eta honako hau esan beharko luke: Rubio Lafuente andrea: Ez al da bateraezina zinegotzi baten enpresarekin kontratatzea?

Hau erabaki da:

- 1) 2016ko martxoaren 9ko bilkura-akta onestea Rubio Lafuente andreak egindako zuzenketarekin.

Aldeko botoak: 10 (hamar); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana

Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Alkatzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2016ko 48/16etik 64/16era bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3. Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Informazio Batzordea.

3.1. Zehatzeko ahalmena ematea Arabako Errioxako Ur Kontsortzioari.

Aurrekariak:

- 1) Arabako Errioxako Ur Kontsortzioko presidenteari jakinaraztea Oyón-Oiongo Udalak zehatzeko ahalmena ematen diola, udal kolektorerara baimendu gabeko isurketak egiteagatik, Arabako Errioxako Ur Kontsortzioaren alde.
- 2) Kontsortzioek eta, bereziki, Arabako Errioxako Ur Kontsortzioak bere helburu zehatzak betearazteko izaera eta gaitasun juridikoa dituzte. Estatutuetan arautzen dira erakundearen lurralde eremua, xedea eta eskumena, gobernu-organoak eta baliabideak, iraunaldia eta beren jardunerako beharrezko diren beste arlo guztiak. Araudian ez da agertzen modu horretara eskaini daitezkeen zerbitzuen salbuespenik.
- 3) Zehatzeko ahalmena eman daiteke. Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak egindako erreformak "ezingo da ahalmenik eman" esaldia ezabatu zuen; hortaz, zehatzeko botere hori emateko aukera dago, zioen azalpenak dioen bezala: "Deszentralizazioa sustatzeko helburuarekin, eraginkortasunaren printzipioaren mesedetan, zehatzeko ahalmena eskuordetzeko debekua ezabatzen da".
- 4) Dena den, Udalbatzak udalaz gaindiko erakundeetan parte-hartzeari buruzko erabakiak hartuko ditu, baita bestelako Administrazio publikoen eskumenak eskuordetzeko onspena ere.
- 5) Eskumena lagaezina da, eta beraiena den erakunde administratiboek gauzatuko dute, eskuordetze edo bereganatze kasuetan izan ezik, lege honek edo beste lege batzuek diotena aplikatuta.

Hau erabaki da:

- 1) Arabako Errioxako Kontsortzioari ematea zehatzeko ahalmena udal kolektorean baimendu gabeko isurketak egiteagatik.
- 2) Arabako Errioxako Ur Kontsortzioak bere gain hartu du dagokion zigorrari hasiera ematea, izapidetzea, ebaztea eta zigorra jartzea.
- 3) Eskuordetzea eraginkorra izan dadin Arabako Errioxako Kontsortzioko organo eskudunaren onspena beharko da.
- 4) Arabako Errioxako Ur Kontsortzioari jakinaraztea, eta iragarkia argitaratzea udaleko iragarki-taulan eta ALHAOn.

Aldeko botoak: 10 (hamar); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi

Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Gamarra jauna: Erabaki hau aspaldi hartu behar zen.

Alkate jauna: Zehatzeko ahalmena eskuordetu gabe zeukan Arabako Errioxako udalerrri bakararra gara.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Informazio Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Informazio Batzordea:

5.1. Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa, Lezako Ospitaleko zerbitzua indartzeari buruzkoa, eta EAJ-PNV taldeak egindako zuzenketa.

Villanueva Gutiérrez jaunak Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa babestu du, Lezako Ospitaleko zerbitzua indartzeari buruzkoa: Euskadiko herritar gisa arretarako eskubidea daukagu. Guk nahiko genukeena da Lezako Ospitalea Arabako Errioxako ospitale garrantzitsua izatea, baina badakigu eskualdeak 12.000 biztanle baino gutxiago dituela. Hori dela eta, zerbitzu indartzeko eskaera egiten dute, herritarrei emandako arreta hobetze aldera. Mozio honekin erakundeei eskatu nahi diegu Lezako Ospitalea indartu dezaten, ohikoenak diren kontsultak eskainiz. Horrela, eskualdeko herritarrez dute hiribururaino joan beharko ohiko azterketa medikoetara. Lezako Ospitalea azken urte hauetan sendotu den zentro bat da; beste hainbat kontsulten artean traumatologia, ginekologia, psikiatria eta dermatologia kontsultak jarri dira. Kontsulta hauek dira “ohikoenak” edo aldizkakoak, psikiatria edo ginekologiaren kasuan bezala. Baina oraindik hutsuneak daude, eta eskualdeko biztanleek Arabako hiriburura joan behar izaten dute aldizkako azterketak egitera.

Alkate jaunak EAJ-PNV taldearen zuzenketa babesten duen dokumentua irakurri du, Lezako Ospitaleko zerbitzuak indartzeari buruzkoa. Honako hau dio hitzez hitz:

“Lezako Ospitalea, Osakidetzako Ospitale-sareko Egonaldi Luze eta Ertaineko Ospitalea, 2016ko urtarrilaren 1etik Arabako Errioxako ESIn dago. Arabako Lurralde Historikoko erabiltzaileei, eta eskualdeko bizilagunei, ospitalizazio zerbitzuak eskaintzen dizkie honako hauei: hainbat gaixotasun kroniko dituzten gaixoak, errehabilitazio prozesuan dauden gaixoak, susperraldia behar duten gaixoak, edo zainketa aringarriak behar dituztenak. Arestian aipatutakoaz gain, zentro honek Lehen Mailako Arretan laguntzen duten kanpoko kontsultak eskaintzen dizkie Arabako Errioxako herritarrei. Halaber, erabiltzaile askok eskatutako kontsultak edota mediku askok eskatutakoak ere eskaintzen dituzte. Honako hau da asteko banaketa:

Barne-medikuntza: zentroko medikua egoten da astearte, asteazken eta ostegunetan.

Kardiologia: zentroko medikua egoten da asteartetan eta asteazkenetan.

Psikiatria: Arabako Osasun Mentaleko Sareko langileek eskaintzen dute, eta honetan datza: psikiatriako kontsulta bikoitza eta espezializatutako erizaina astelehen eta asteazkenetan.

Ginekologia/Obstetrizia: Arabako Unibertsitate Ospitaleko (AUO) ginekologo batek ematen du. Ostegun eta ostiraletan.

Emagina: haurdunaldia kontrolatzera, erditzea prestatzera eta zitologiaren protokoloa betetzera zuzendutako kontsulta. Ostegun eta ostiraletan.

Errehabilitazioa: AUOko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko 2 espezialista dauzkagu, bat ambulatorioko gaixoentzat, eta bestea helburu horrekin ospitaleratutako gaixoentzat. Asteazkenero.

Dematologia: AUOko dermatologo bat egoten da ostiralero.

Traumatologia: AUOko traumatologo bat egoten da ostiralero.

Kontsulta horiez gain, diagnostikatzeko oinarritzko sistemak ere baditu (erradiologia sinplea, elektrokardiografia, espirometro, bronkodiltazioko frogak, premiazko analisiak egiteko aparatuak...).

Erizainak uste badu beste gaixo horiek espezialista batek baloratu behar dituela, edo behar dituen frogak ohikoak ez direla edo sofistikatuagoak direla uste badu, gaixo hori espezializatutako zentro batera bidaliko da, eta Gasteizko Osakidetzako Erreferentziazko Zentroetara (45 min.) edo Logroñoko (20 min. gutxi gorabehera) ospitalera bidaltzeko aukera eskainiko zaio, 2013ko irailetik indarrean dagoen Akordioak dioena betetze aldera.

Eskualdeko biztanleen (11.000 biztanle, gutxi gorabehera) eta geografiaren banaketak (oso sakabanatuta dago; gutxienez, 17 herrigune) kasuistika nahikoa ez izatea dakar, beste kontsulta edo diagnostika batzuk eskaintzeko; izan ere, konplexuagoak eta sentiberagoak izateaz gain, gutxi erabiliko ziren eta errentagarritasuna baxua izango zen.

Gamarra jauna: Bi ekimenek oinarrian gauza bera proposatzen dute; hortaz, gure taldea zati batean ados dago biekin, eta bien aurka dago. Hori dela eta, abstenitu egingo gara.

Campos Latre jauna: Zerbitzuak indartzearen alde gaude, badakigu arazoak eta deserosotasunak daudela Gasteizera mugitzearekin.

Villanueva Gutiérrez jauna: EAJ taldearen zuzenketak gure moziok eskatzen duena eskatzen du, hau da, Lezako Ospitaleko zerbitzuak indartzea. Eta gauza bera badio, zergatik aurkeztu duzue zuzenketa? Koherentziagatik abstenitu egingo gara zuzenketaren bozketan, ea zerbait ona ateratzen dugun.

EAJ-PNV taldeak Eh Bildu taldeak aurkeztutako mozioari egindako zuzenketa bozkatu da. Eraitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP) eta Diana Rubio Lafuente (PP)
Abstentzioak 3 (hiru): José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Hau erabaki da:

1. Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Arabako Errioxako ESIak eskualdeko herritarren lehen mailako arretari dagokion eskaera babestea eta erantzuna ematea. Halaber, euskal osasun-sistemaren zerbitzuen gutunean zehaztutako prebentzio-jarduerak martxan jarri ditzan eskatzen dio.
2. Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzako eskatzen dio Arabako Errioxako ESIk eskaera handiko kanpo-kontsulta espezializatuak eskaintzeko, erabiltzaileen eguneko arreta hobetze aldera, dagozkion langileak kontratatuz.

EAJ-PNV taldeak aurkeztutako zuzenketa onetsi denez, Eh Bilduren mozioa ez da bozkatu.

5.2. Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa, Lezako Ospitaleko mamografiaren kanpainari buruzkoa, eta EAJ-PNV taldeak egindako zuzenketa.

Villanueva Gutiérrez jaunak Eh Bildu Oion taldearen mozioa irakurri du, Lezako Ospitaleko mamografiaren kanpainari buruzkoa:

“Orain dela urte batzuetatik, Osakidetzak martxan jarri duen kontrolatzeko planak eta osasun prebentzioa direla eta, Arabako Errioxako emakumeei aldizkako mamografiak eta kontsultak egiten zaizkie. Kuadrillako emakumeak Gasteizera joaten dira kontsulta horietara, eta lanetik atera behar izaten dute, edo adinekoak diren familiarrei edo gidabaimenik ez dutenei lagundu behar izaten diete. Zerbitzu horretara joan ahal izateko, zonako emakumeek 150 kilometro egin behar izaten dituzte. Hortaz, gastu ekonomikoa gehitu behar zaio.

Hori guztia aintzat hartuta, Eh Bildu Oion taldeak mozio bat aurkeztu du Udalbatza Osoak eztabaidatu eta onetsi dezan:

1. Oyón-Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Osakidetzari eskatzen die Lezako Ospitaleko osasun-eskaintza indartzeko, Arabako Errioxako mamografia zerbitzua eskainita.
2. Lezako Ospitalean zerbitzu hau eskaintzen ez den bitartean, mamografiaren kanpainan autobus zerbitzua edo joan-etorriko garraioa jartzeko eskatzen dute, Kuadrillako emakumeak Gasteizera joan ahal izateko.
3. Mozio hau igortzea Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Osakidetzari.

Alkate jaunak EAJ-PNV taldeak mozioari egindako zuzenketa irakurri du:

Prebentzio-ekintza horien arreta testuinguruan eskatzen denari dagokionez esan nahi dugu, gehienetan, lehen mailakoak edo bigarren mailakoak izanik eta gure osasun sistemaren zerbitzua multzoan sartu ondoren, lehen mailako arretaren esparruan eskaintzen diren aipatutako ekintza horiek.

Beste bi programa daude, eta osasun publikoaren ikuspuntutik biztanleak bahetzeko programatzat hartzen dira, beraien ezaugarriengatik eta beste hainbat arrazoiengatik. Hauek dira programa horiek: Koloneko Minbizia Bahetzeko Programa eta Bularreko Minbizia Bahetzeko Programa.

Bularreko Minbizia Bahetzeko Programa, bere ezaugarri teknikoak direla eta (bi aldeko mamografia egitea, bi jarrera desberdinetan), ekipamendu teknikoekin (mamografiak) eta trebatutako Erradiologoekin egin behar da, programa eraginkortasun, efizientzia eta segurtasun berme handiekin garatu dela bermatzeko. Hori dela eta, programa hasi zenetik unitate zehatzetan diseinatu zen, hori bermatu duten gaixo/biztanle kopuruarekin. Horrela, ikuspuntu beretik, erabaki zen Tomografo mugikor bat egingarria ez zela. Hala ere, unitatean jasotako hainbat iradokizunei erantzuna emate aldera, eta batez ere erreferentziazko zentroetatik urruti bizi diren pertsonen eskaerei, programa honen bitartez udalari jakinarazten zaio, 15 egun lehenago, denbora zehatz batean kontsultetara joan behar den emakume kopurua (programa oinarrizko zonaka egiten diren kontsulten bidez garatzen da; hortaz, landa-eremuan, orokorrean, udalerrri bateko emakume guztiak aldi zehatz batean joaten dira kontsultetara). Hitzorduak garraio bideen ordutegietara egokitzen dira.

Alkate jaunak EAJ-PNV taldeak mozioari egindako zuzenketa irakurri du:

1. Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Bularreko Minbizia Bahetzeko Programak eraginkortasun, efizientzia eta segurtasun berme altuekin jarraitu dezan.
2. Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 15 egun lehenago jakinarazten jarraitu dezan hitzordua daukaten emakumeen kopurua, hitzorduak THA edo bestelako garraio bideetara egokitze aldera.

Gamarra jauna: Bilduren mozioarekin ados gaude; gutxienez doako garraioa eskatzen du. EAJ taldea ez du ezer eskatzen.

Villanueva Gutiérrez jauna: Berriz irakurri dut EAJ taldearen zuzenketa eta ez du ezer eskatzen, zerbitzua dagoen bezala mantentzea. Gainera, 2. puntua ez da legezkoa, datuen babeserako araudia betetzen ez duelako. Zer egin du udalak orain arte?

Campos Latre jauna: Gure ustez Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatu beharko lioke Nafarroarekin eta Arabako Errioxarekin hitzarmen bat sinatzeko, mamografiak egiteko makina mugikor bat daukatelako eta, horrela, gaixoez ez dute Gasteizera joan beharko.

Alkate jauna: Osakidetzak mamografo mugikorra baztertu du gutxieneko faltsu positibo eta negatiboengatik. Gogoratzen dut Leza erreferentziazko ospitalea dela 12.000 biztanleko eskualde batentzat, eta bularreko minbizia bahetzeko programa borondatezko froga batean oinarritzen da. Gaixo horiei doako garraioa eskaintzen bazaie, Gasteizera beste froga batzuetara joaten diren gaixoentzat bidegabea da. Arrazoi duzue, zuzenketa gaixoen kopuruaz hitz egin behar da, eta ez zerrenda bati buruz. Eta Arabako Errioxako edo Nafarroako hitzarmenari dagokionez, ez da eskatzen ez mozioan, ezta zuzenketa ere. Ez dator harira.

Osakidetzak 300 hitzordu ematen ditu hamar egunetan, eta egunero aldaketak proposatzen dira erabiltzaileen eskaerei erantzuteko.

EAJ-PNV taldeak Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioari egindako zuzenketa bozkatu da, Lezako Ospitaleko mamografiaren kanpainari buruzkoa:

1. Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzak eskatzen dio Bularreko Minbizia Bahetzeko Programak eraginkortasun, efizientzia eta segurtasun berme altuekin jarraitu dezan.
2. Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzak eskatzen dio 15 egun lehenago jakinarazten jarraitu dezan hitzordua daukaten emakumeen kopurua, hitzorduak THA edo bestelako garraio bideetara egokitze aldera.

Aldeko botoak: 4 (lau); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Abstentzioak: 1 (bat); Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 5 (bost) Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP); Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Ez da zuzenketa onetsi.

Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa bozkatu da, Lezako Ospitaleko mamografiaren kanpainari buruzkoa:

Aldeko botoak: 6 (sei); Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 4 (lau); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV),

Hau erabaki da:

1. Oyón-Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Osakidetzari eskatzen die Lezako Ospitaleko osasun-eskaintza indartzeko, Arabako Errioxako mamografia zerbitzua eskainita.
2. Lezako Ospitalean zerbitzu hau eskaintzen ez den bitartean, mamografiaren kanpainan autobus zerbitzua edo joan-etorriko garraioa jartzeko eskatzen dute, Kuadrillako emakumeak Gasteizera joan ahal izateko.
3. Mozio hau igortzea Arabako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Osakidetzari.

Azken puntua) Galderak eta eskeak

Gamarra jauna: Jaietako programa bilkuran lantzea polita izango litzateke, Tabernariak diskoteka ibiltaria eta zezensuzkoa eskatu dituzte.

Tarragona jauna: Egin dezatela eskaera eta hitz egingo dugu...

Villanueva jauna: Liburutegian Gara egunkaria jartzea nahi nuke.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:17etan (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2016ko apirilaren 27an

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE:

El acta se redacta en el idioma en el que se desarrolla la sesión, castellano y se traduce al euskera por Euskalgintza Bulegoa S.L.